

HIRIGUNEAN ALDATU DIREN IZENAK	
ORAIN ARTEKOA	ARAUTUTAKO IZENA
Aitzbizkar kalea	Aizpizkar kalea <sup>1</sup>
Apraiz kalea	Apatriz kalea <sup>2</sup>
Ermuaran bide	Ermuaranbide kalea <sup>3</sup>
Erretxindi kalea	Erretsundi kalea <sup>4</sup>
Foruen plaza	Kalegoen plaza <sup>5</sup>
Ofizialki izenik ez	Bolatokiko parkea <sup>6</sup>
Gabriel Krutzelaege	Gabriel Kurutzelaege <sup>7</sup>
Goiko Errotako zubia	Goikoerrotako zubia <sup>8</sup>
Ibai-tarte kalea	Ibaitarte kalea <sup>9</sup>
Iñiguez Karkizano kalea	Iñiguez Karkizao kalea
Juan Muguerza kalea	Juan Mugerza kalea <sup>10</sup>
Leku Eder parkea	Lekueder parkea <sup>11</sup>
Ofizialki izenik ez	Loritaneko aldapa
Ofizialki izenik ez	Maalako parkea
Ofizialki izenik ez	Maalako plaza
Morkaiko kalea	Morkaiku kalea <sup>12</sup>
Nafarroa plaza	Kalebarren plaza <sup>13</sup>
Pedro Muguruza etorbidea	Pedro Mugurutza etorbidea <sup>14</sup>
San Juan plaza	San Joan plaza <sup>15</sup>
Txankakuako zubia	Txankakoako zubia
Upaiz zaharra kalea	Uparitzaga kalea <sup>16</sup>
Urasandi kalea	Urazandi kalea <sup>17</sup>
Xixilion kalea	Zizilion kalea <sup>18</sup>

<sup>1</sup> Toponimoaren idazkera zuzena Aizpizkar. Aitzbizkar idazkera etimologikoa bada ere euskaraz desegokia da ez baita posible tz+b ahoskatzea. Horrelako idazkerak modan egon ziren XX. mendearen hasieran. Kasu ezagunena Aizkorri mendia da, sarritan Aitzgorri eta Haitzgorri moduan eman dena.

<sup>2</sup> Apatriz doku mentatzen da XVIII eta XIX mendeetan eta Apraiz XX. nean ageri da. Eusko Jaurlaritzak ere Apatriz hobetsi zuen.

<sup>3</sup> Toponimia arautzeko irizpideek argi adierazten dute izen hau hitz batean eman behar dela bi arrazoï desberdinengatik. Batetik izen bati kasu markarik gabe beste izen, adjektibo edo posposiziorik atxikitzen bazaio hitz batean eman behar da. Bestetik -bide osagaia aurrekoari atxikitzen zaio leku izena baldin bada. Azkenik ahoskerak berak/ermuaranbide/ adierazten du hitz bakar bat dela.

<sup>4</sup> Izena ongi dokumentatzen da eta Erretsundi da idazkera egokia. Baseria ere horrela da.

<sup>5</sup> Nazio Batuek erabaki dute toponimia kultura ondarea dela eta ondorioz babestu egin behar dela. Gauzak horrela, lehentasuna eman behar zaie toponimo tradizionalei eta ez beste izendapenei.

<sup>6</sup> Bertako toponimoa ezaguna eta erabilia da eta toponimoak kultura ondare direnez lehenetsi behar dira.

<sup>7</sup> Elgoibarko deitura eta oinetxea. Gabriel izeneko marinela bietara ageri da doku mentazioan, *Curucelaegi* eta *Crucelaegi*. Baserri izena Kurutzelaege hobetsi zuen Udalak eta horrela beretsi da ikerketan..

<sup>8</sup> Irizpide nagusia etxe izenak hitz bakar batean idaztea da, hortaz Goikoerrotta izan behar du. Gainera, etxe izena ez balitz ere egokia litzateke hitz batean ematea, nahasgarria ez izateko.

<sup>9</sup> Idazteko irizpideek eta araudiaren arabera tarteko marra izen bi lotzean erabili behar da ez izen baten barruan.

<sup>10</sup> Euskal deiturak euskaraz ematea da gomendioa.

<sup>11</sup> Toponimoak idazteko irizpideek xehazten dute izenak hitz batean eman behar direla: Kortazar, Urazandi, Basarte eta ez bitan: Korta Zahar, Uraz Handi edo Baso Arte.

<sup>12</sup> Elgoibarren eta inguruan ohikoa da -ko amaiera duten izenak aldatzea eta -ku bihurtzea. Horiek horrela *goikoa*, *bekoa* edo *erdikoa* guztiak *goikua*, *bekua* eta *erdikua* bihurtu ziren XX. mendean. Hori ikusita, Morkaiko izenaren aldaera zaharra zela pentsatu zen, eta horrela arautu zen. Hala ere, ikerketak argi erakutsi du Morkaiku dela euskarazko izen zaharra, jadanik 1811n horrela ageri da.

<sup>13</sup> Nazio Batuek erabaki dute toponimia kultura ondarea dela eta ondorioz babestu egin behar dela. Gauzak horrela lehentasuna eman behar zaie toponimo tradizionalei.

<sup>14</sup> Euskal deiturak euskaraz ematea da gomendio nagusia.

<sup>15</sup> Euskarazko izena, Bizkaia eta Gipuzkoan arrunta, *San Joan* da.

<sup>16</sup> Toponimia ikerketak argi erakutsi du izen jatorra *Uparitzaga* dela.

<sup>17</sup> Euskal Herrian nahiko arrunta da izen hau, edo antzekoak eta -z behar du hori baita dagokion idazkera, esanahia "Ibaiaz beste aldea" baita.

<sup>18</sup> Palatalizatutako aldaerak ez dira lehenesten palatalizazio horrek ez badu esanahi adierazgaririk.

<b>ELGOIBARKO AUZOEN IZEN OFIZIALAK</b>
---

<b>ALTZOLA</b>
----------------

<b>AZKUE (SAN ROKE)</b>
-------------------------

<b>ARRIAGA</b>
----------------

<b>IDOTORBE (SAN PEDRO)</b>
-----------------------------

<b>URRUZUNO</b>
-----------------

<b>AIASTIA (SAN MIGEL)</b>
----------------------------

<b>SALLOBENTE-ERMUARAN</b>
----------------------------

<b>URRUZUNO</b>
-----------------